



ARAUDIA

1. Jokoa, atezaina eta sei jokalaria egongo dira.
2. Partidu aurretik beroketak egin nahi dituzten taldeek, berdegunetik kanpo egingo dituzte, FUTBOL 11ko ateen atzealdean
3. Partiduren batera talde bat ez bada agertzen, edo gutxienez bost taldekide ez badira agertzen, talde horri partidua galdutzat emango zaio (3-0) eta hiru puntuko penalizazioa izango du. Beste taldeak hiru puntu jasoko ditu.
4. Partidua hasi baino 15 minutu lehenago gutxienez, taldeak futbol zelaian egon behar du.
5. Partidu bakoitzak, 25 minutuko bi zati eta bost minutuko atsedenaldea izango ditu. Ez da denbora geldituko eta luzapena epaileak erabakiko du zenbaitekoa izango den.
6. Behin partidua hasita, arrazoi garrantzitsu batengatik bertan behera utzi behar bada, momentuko emaitza hartuko da kontuan. Oraindik hasi gabe badago, beste data bat aukeratuko da.
7. Ezin da aluminiozko botekin jokatu.
8. Nahi adina aldaketa egin daitezke partiduko, epaileari baimena eskatu gabe. Aldaketa hauek, zelai erditik egingo dira eta jokatzeko ari dena irten arte ez da bestea sartuko.
9. Etxean jokatzeko duen taldea izango da baloien bila jutearen arduradun. Partidu hasieran sei baloi emango zaizkio, hiru talde bakoitzarentzat. Amaieran sei baloiak bueltan eramango ditu antolakuntzaren txokora.
10. Txapelketako instalazioetan eragindako edozein kalte, kaltea eragin duen pertsonaren ardurakoa izango da.
11. Atezainak, eskuartean, ezin izango du baloia 5 segundo baino gehiago eduki.
12. Atezainak hankarekin ateratzen duenean (ateko sakeak izan ezik), baloiak ezin izango du kontrako taldearen zelaian lehen



botea eman. Hau gertatuko balitz, kontrako taldeak zelai erditik falta aterako luke.

13. Area kanpoan egindako falta jaurtiketa guztiak zuzenak izango dira.
14. Atezainak ateko sakea egiten duenean, bere taldeko jokalariak areaz kanpo jaso beharko du baloia. Honela ez balitz, sakea errepikatu beharko litzateke.
15. Hesia, zazpi metrotara jarriko da.
16. Izena eman ez duenak ezin izango du jokatu.
17. Jokoan dauden bi taldeek ekipamendu berdina edo antzerakoa badute, kanpoan jokatzen duen taldeak jarriko du petoa.
18. Final eguneko bazkarian, antolakuntzak talde baten laguntza jasoko du bazkaria eta gero mahaiak eta aulkiak jaso eta Azoka garbi uzteko. Talde hau, zozketa egitean ateratzen den lehen taldea izango da (A1). Talde honek finala jokatu behar badu B1 taldea izango da lagundu beharko duena. Honek ere finala jokatu behar badu, C1 taldeak lagunduko dio antolakuntzari.

19. EPAILEAK

- a. Ligaxkako partiduetako epaileak, taldeetako parte hartzaileak izango dira. Jokatu behar duten aurreko partiduko epaileak izango dira. Taldeko kide bat edo taldeak izendatutako pertsona bat izan daiteke epailea.
- b. Bilera egunean jakinaraziko da zein partiduetako epaile izango den talde bakoitza.
- c. Epailea azaltzen ez den kasuetan, partiduko epailea izatea zegokion taldea zigortua izango da 5 puntu gutxiagorekin.
- d. Salbuespena: atzeratu/aurreratutako partiduen kasuan partidu horretako epailea izatea zegokion taldeak izango du epaile izateko ardura. Baina, data/ordu aldaketak eragozpenak sortzen baditu, antolakuntzari jakinarazi beharko dio eta irtenbiderik egokiena bilatuko da.



- e. Gomendioa: Epaileari lanak errazteko, komenigarria litzateke bi marrazainen laguntza.

20. TXARTELAK

- a. Futbol 11n bezala izango dira, baina balioa galduko dute partidua amaitzean.
- b. Jokalari batek txartel gorria ikusten badu, ezin izango du partidu horretan jokatzeko jarraitu, baina txartela ikusi eta bost minututara beste taldekide bat aterako da jokatzera.
- c. Taldea 4 pertsonekin geratzen bada, partidua bertan behera geratuko da eta emaitza 3-0 izango da. Momentuko emaitza 3-0 baino hobea bada, hau mantenduko da.
- d. Jokalari batek 2 txartel gorri zuzen ikusten baditu, ez du partidu gehiago jokatu.

21. PUNTUAKETA

- a. Irabazleak hiru puntu jasoko ditu.
- b. Berdinketa kasuan, talde bakoitzak bina puntu jasoko ditu.
- c. Galtzaileak puntu bakarra jasoko du.

22. PARTIDUETAKO BERDINKETA KASUETAN

- a. Ligaxkan, ez da luzapena egongo. Berdinketa kasuan bukaeran 3 penalti botako dira. Penaltien berdinketa kasuan, talde bakoitzak penalti bat gehiago jaurtiko du, talde batek penaltia hutsegina arte.
- b. Hurrengo fasean, berdinketa kasuan, luzapena egongo da. Bost minutuko bi zati jokatu dira eta oraindik ere berdinketa egonez gero penaltiak jaurtiko dira.
- c. Finalean eta hirugarren eta laugarren postua jokoan dagoen partiduan, 30 minutuko bi zati jokatu dira. Berdinketa kasuan luzapena egongo da. Bost minutuko bi zati jokatu dira eta oraindik berdinketa egonez gero penaltiak jaurtiko dira.
- d. Azken bi kasuetan, bost penalti jaurtiko dira. Berdinketa kasuan, talde bakoitzak penalti bat gehiago jaurtiko du, talde batek penaltia hutsegina arte.

- 23. Hurrengo fasera, talde bakoitzeko lehengo bi sailkatuak pasako dira.

24. TALDEEN SAILKAPENA



- a. Talde bakoitzak lortutako puntuak hartuko dira kontuan.
 - b. Berdinketa kasuan, golaberax partikularra hartuko da kontuan.
 - c. Oraindik ere berdinketa badago, golaberax generala hartuko da kontuan.
 - d. Oraindik ere berdinketa badago, penaltien emaitza partikularra hartuko da kontuan.
25. Bigarren faseko egutegia aldaezina izango da. Bertako egun eta ordutegiak errespetatuko dira antolakuntzak kontraktorik esaten ez badu. Bigarren fase honetako lehen partidua talderen batek jokatzetik izango ez balu, talde honen talde multzoko hirugarren sailkatua pasako litzateke bigarren fasera. Hortik aurrerako partiduetan talderen batek jokatzetik izango ez balu, talde honek kanporatu duen taldeak jarraituko luke aurrera.
26. Gainerako araudia, FUTBOlean erabiltzen denaren berdina izango da, puntu hauen kasua izan ezik:
- a. PENALTIA**
Penaltia jaurtitzeko puntua ateko marratik 9 metrora kokatuko da.
 - b. ATEKO SAKEA**
Ateko sarea egiteko gunea ateko marratik 4 metrora egongo da.
27. Antolatzaileek eta epaileek hartutako erabaki guztiak mugiezinak izango dira.
28. Arautegian agertzen ez denaz, antolatzaileak eta epaileak arduratuko dira.
29. Antolatzaileak onartzeko eskubidea erreserbatua dute, baita txapelketaren garapena oztopatu edo arauak hausten dituzten taldeak edo partaideak txapelketatik kanpo uzteko eskubidea ere.
30. Antolatzaileek ez dute txapelketan gertatutako lesio, gaixotasun eta lapurreten gaineko erantzukizunik izango. Dena den, partiduetan Gurutze Gorriko ambulanzia eta botikin bat egongo da.



EUSKARAZ
bizi
nahi dut

31. Txapelketa honetan parte hartzen duten talde guztiek, antolaketak daukan araudia (talde bakoitzak ale bat dauka) onartu beharko dute.

LEGAZPIKO 10 urte
GAZTEAK K.E.